

**IKASTETXE GUZTIENDAKO JARDUERA KOMUNA. 2011KO MARTXOAN EGITEKOA.  
 JARDUERA MOTA: IKERKETA LANA + IKASTETXEETAN AZALPENA  
 JARDUERAREN EDUKIA: AUTONOMIA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA**

<b>IKASTETXEA</b>	Irurita Gotzaina
<b>HERRIA</b>	Larraitzarko ikastetxea (HH,LH,DBH)

**1. JARDUERAREN PROGRAMAZIOA**

<b>IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA</b>	<p><b>EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK</b></p> <p><b>HH:</b> Emakumeak izateagatik lan konkretu batzuk (etxeko lanak eta zaintza) egitera derrigortuta ez izateko eskubidea landuko dugu. Horretarako zuek prestatutako "Yo te mimo, tu me mimas" eta "El trabaja, ella trabaja" ekintzak egingo ditugu.</p> <p><b>LH:</b> Enplegu aukera eta baldintza berdinerako eskubidea lantzeko "Arbol laboral de nuestras familias" eta "Radiografia de una profesion" ekintzak egingo ditugu.</p> <p><b>DBH:</b> Emakumeok gure bizitzako esparru desberdinak nahi dugun moduan bateratzeko eskubidea lantzeko "Mi vida dentro de ..... 15 años" iharduera landuko da eta etxeko lanei buruzko ikerketa estatistiko xumea egingo da.</p> <p>Iharduera hauetariko batzuk betetzeko aurretik gelan gaia landuko da eta egun honetan lan guztiak bilduta patioan, tenderete erraldoi batean, zintzilikatuko dira.</p>
<b>HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITITU NAHI DIREN IDEIAK</b>	Emakumearen eskubideen inguruan hausnarketa bat egitea da gure helburua (lanbideetan zentratuta).
<b>PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...</b>	Ikastetxeko partaide guztiak eta familiak.
<b>BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTUAK, ELKARRIZKETAK...</b>	Inkesta, ipuina, elkarrizketa, argazkiak, irudiak...

## 2. JARDUERAREN LABURPENA

<p><b>EGINDAKO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA</b> (argazkiak, irudiak... ere sartu)</p>	<p><b>EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK</b></p> <p><b>HH:</b> Emakumeak izateagatik lan konkretu batzuk (etxeko lanak eta zaintza) egitera derrigortuta ez izateko eskubidea landu dugu. Horretarako zuek prestatutako "Yo te mimo, tu me mimas" eta "El trabaja, ella trabaja" ekintzak egin ditugu.</p> <p><b>LH:</b> Enplegu aukera eta baldintza berdinerako eskubidea lantzeko "Arbol laboral de nuestras familias" eta "Radiografia de una profesion" ekintzak egin ditugu.</p> <p><b>DBH:</b> Emakumeok gure bizitzako esparru desberdinak nahi dugun moduan bateratzeko eskubidea lantzeko "Mi vida dentro de ..... 15 años" iharduera landu da eta etxeko lanei buruzko ikerketa estatistiko xumea egin da.</p> <p>Iharduera hauetariko batzuk betetzeko aurretik gelan gaia landuko da eta egun honetan lan guztiak bilduta patioan, tenderete erraldoi batean, zintzilikatuko dira.</p> <p>Girotzeko, gaiarekin loturiko musika jarri zen eta hormairudiak, leloak, zenbait emakumeren biografiak, etxeko lanei buruzko inkestaren grafikoak eta abar eskegi ziren patioan.</p>
<p><b>BOST ESALDI EDO TITULAR, EMAITZAK ETA ONDORIOAK LABURTZEKO</b></p>	<p><b>IKASTETXE OSOAREN INPLIKAZIOA.</b></p> <p><b>EMAKUMEEN EGOERAREN BILAKAERAZ IKASLE GEHIENAK OHARTU ZIREN.</b></p> <p><b>BESTE MODU BATEAN (KANPOKO JARDUERAK, JARDUERA ARTISTIKOAK, "FESTA" MODUKO GIROAN...) GAUZA INTERESGARRIAK LORTU AHAL DITUGU.</b></p> <p><b>URTE OSOAN ZEHAR LANDUTAKOA INDARTZEKO BALIO IZAN DU.</b></p> <p><b>HEZKIDETZAK DUEN GARRANTZIAZ OHARTU GARA.</b></p>
<p><b>OHARRAK, IRITZIAK, BALORAZIOAK...</b></p>	<p><b>DBHko idazlanetan ("Mi vida dentro de ..... 15 años") ikusi dugu neska askok imajinatzen dutela beraien bizitza lanean (etxetik kanpo) eta seme-alabekin.</b></p> <p><b>Mutilen artean, harrigarria da zer nolako garrantzia ematen dioten automobila izateari.</b></p> <p><b>Inkesten emaitzetan, (LH5 eta 6, DBH1, 2, 3 eta 4 taldeetan egina) familietako amen %80 inguruk etxetik kanpo lan egiten du.</b></p> <p><b>Lan handia ekarri badu ere, irakasleek gustura egin dute lan. Ikasle gehienei oso jarduera interesgarriak iruditu zaizkie eta motibatuta aritu dira. Orokorrean, helburuak (emakumeen egoeraren bilakaera, lanak edo enpleguak duen garrantzia, etxeko lanak guztionak izatea) lortu dituzte ikasleek.</b></p> <p><b>BERDINTASUN BATZORDEKIDEAK OSO POZIK GAUDE EGIN DUGUN LANAREKIN.</b></p>